
ARAZOAK

ETORKIZUNA

NORTZUK GAZTE?

Konclairako jazoera azkarrak, gure idazleak azterpenak egitera beartzeko indarra dauke. Baiña irudimena daukenak baiño, ez dabe aztertzen, bear dan lez, etorkizuna. Gaztea ez da urte gitxi daukazena, geroari begira dagoana baiño. Ba-dagoz gizonak, adiñez elduak izan arren, gatzetasunez beterik dagozanak, aurrerantz begiratzen dabenak, eta ori irudimenez beterik dagozalako.*

ARRISKUAK

Etorkizunari begiratzea ez da azti edo igarle izatea, naizta sarritan ainbestetan geroari begiratuetz, igarle biurtu. Dana dala, oraindiño geroaren esku dagoana begiratzeak, ba-daukoz bere arriskuak eta orretan dabillena ago-miñean erabilia eta jazartua izaten cia. Ori da arriskurik aundiena. Igarleak be, orduan jazarten ebezan, eta geiago*, igarle izan barik, orretara sartzen ziranak!*

EPE LABURRA

Okerkuntzarik ez egiteko, begiratu bururatzen dogun geroa, etorkizuna. Orain arte jakintza'ren ama lez ikusten eban gizonak, experientzia edo oar-ikasía. Gaurko munduan oar-ikasi barriak arin etorten dira eta aurrean dagoanari emoten jako garrantzia. Etorkizuna ez da ikuspegi bat baiño, eta ikuspegi ori be beti barrizatua. Bi milla garren urtean jazoko dana aurrez ikustea, arriskutsua da, baiña lapraztada batzuk egitea, utsen bat egitea, onartu lei beste ondoren onen ondoan. Bi millagarren urtera arteko aldia, norabidez eta erratzeko bide-kurutzez beterik dago. Baiña ur*, urrengo etxe-bazterreko biran ba'lego lez.*

ARDURAK BULTZATUTA

Barrero diñot: Etorkizunari begiratzea ez da azti edo igarle izatea, ez da sorgiñen lana. Gizon ikas-zalearen elburua da. Gizadiaren ezin-egonak, ibilketak, larritasunak, kexaldiak eta olakoak bultzatzen gaitue joko orretara. Filosofiaren, teolojiaren ekonomiaren, teknikearen aurrerapideak eskatzen dasku zorotasun ori. Gaiñera, ekoloji-egoera ona nai dauan mundu onetan bizi gara. Etorkizunari begiratzen zaleak garan guztiok ikasi bear dogun jakintza bat da ekolojia.*

EKOLOJI-ARAZOAK

Ekolojia, jakintza baiño eginbidea da beiñago. Ernest Eckel'ek, orain mende bat dala, asmau eban *ekolojia* itza. Gizonak gizadian eta izadian dituan zer-ikusi guztiak aztertzen ditu ekolojiak. Ekolojia ta etorkizunaren ikastetxeak Inglaterra'n, Alemania'n, Kanada'n eta Ipar-Ameriketara ugari dagoz. Emen, Rand Corporation edozein jakitunek ezagutzen dau eta New York'en Hudson'go ikastetxea guztiz ezaguna da.*

GAZTETASUNAREN EZAUGARRI

Etorkizunaren arduradun izatea gatzetasunaren ezaugarri ba'da, lengoetan bakarrik egon eta arduratzea agurekeriaren ezaugarria dala diño Azorin idazleak: Zartasuna, agurekeria, irudimena galtzea da, esaten eban. Gure Unamuno'rentzat, olerkia zan «oraingoaren betikotasuna». Eta Teilhard de Chardin'ek beste au idatzi eban: «Zenbat eta urrago gizona gizon izatera eltzen dan, ainbestean apurtu eziñeko gauza barrietarantz joko dau». Lenengo bear dana ez da dana apurtzea, aurrerantza ta gorantza bidea egitea baiño.*

KRISTIÑAUTASUNA ETORKIZUNERA

Kristiñautasuna Euzkadi'ren erlejiñoa da, ezkerraldekoak onartu ez arren. Kristiñautasuna etorkizunerantz iraulita dago. Ez ete da ba kristiñaua betikotasunerantz doan gizona? Kristiñauak geroaren ikuspide guztian Jon deunaren gurari aundia darabil bere biotz-taupadetan: ERDU JESUS JAUNA. Baiña ez da naikoa Jesus'eri itxarotea, beraren billa urten bear dogu.

EGILUZE'k